

/ Nabarmenezkoak

- > Komun berria irekita dago Portu Zaharrean, erabili ondoren berez garbitzen dena (2. or.)
- > Getxoko gurutzantzen terminalak OPS konexiorako bi puntu jarriko ditu martxan 2027aren amaieran (4. or.)
- > Maiatzaren 6ra arte dago zabalik Getxo Kirolakenean udako kirol ikastaroetan izena emateko epea (5. or.)



* Habia-kutxa monitorizatu bat jarri da Mesedeetako elizako dorrean, belatz handi bikote baten jarraipena egiteko (5. or.)

Liburu Azoka. Apirilak 24, 25 eta 26, Areetako Geltokiko plazan.

A-
GENDA

Nazioarteko Dantza Eguna.
Hilak 25, larunbata, Evaristo Churrucakaien, 12:00etan, eta San Nikolas plazan, 18:00etan.

Maiatzaren 6an egingo da, TikiToki Zentroan, parte-hartze digitaleko ikaskuntzen eta esperientzien trukea errazteko

Zeugaz Eguna: berrikuntza publikoari buruzko lehen topaketaren buru da Getxo, sakontze demokratikoan aurrera egiteko

Datorren asteazkenean, maiatzak 6, Getxok Zeugaz Eguna. Berrikuntza publikoa, demokrazian sakontzeko ekitaldia hartuko du Tiki Toki Zentroan, Zeugaz/Decidim/Erabaki plataformaren bidez parte-hartze digitalean eta gobernantza demokratikoan ikaskuntzak eta esperientziak trukatzeko laguntzeko topaketa, eta Euskal Herriko erakunde eta eragileen arteko lankidetzaren indartzeko.


Decidim herritarrek parte hartzeko azpiegitura digital publiko gisa finkatu da, eta mundu osoko ehunka erakundeek erabiltzen dute. Bere eredu irekiak eta publiko-komunitarioak gardentasuna, lankidetzaren eta guztion ongizatasuna, kokatzen ditu ekintza publikoaren erdigunean. Bartzelonako Udalak sortu zuen 2017an, eta munduko 450 erakunde baina gehiagok aukeratu dute plataforma, besteak beste, New Yorkeko, Helsinkiko eta Brasilgo Gobernu Federalak. Horrela, teknologia publikoak partaidetza eta demokrazia indartzeko duen ahalmena erakutsi dute. Getxo izan zen ezarri zuen Euskadiko lehen udalerrria.

Jardunaldia bi saiotan banatuko da, goizez eta arratsaldean, publiko desberdinei zuzenduta. Aipatutako plataformari eta haren erabilera praktikoari buruzko hausnarketa izango da bien ardatza.

Decidim erakundeetan. Esperientziak eta ikaskuntzak

Goizean, 09:30etik 14:00etara, topaketa Euskadiko eta Nafarroako erakundeetako teknikariei eta arduradun politikoei dago zuzenduta. Ponentzia eta kasu errealen bidez, aztertuko da Decidimek nola ematen duen aukera parte-hartze prozesu irekiagoak, gardenagoak eta lankidetzara bideratuagoak artikulatzeko.

Irekiera instituzionala Amaia Aguirre



Getxoko alkateak egingo du, eta balioan jarriko du udalerririak duen konpromisoa herritarren parte-hartzearekin eta hori errazteko tresna publikoaren garapenarekin. Getxo izan zen Euskadin Zeugaz izenaz Decidim hedatu zuen lehen erakundea, eta 2021etik ibilbide aitzindaria sendotu du arlo horretan.

Arnau Monterdek, Bartzelonako Udaleko Partaidetza eta Berrikuntza Demokratikoko zuzendariak, *Infraestructuras públicas para la democracia participativa* izeneko esparrutxostena emango du. Bertan, plataforma digitalek partaidetza-prozesu irekiagoak, gardenagoak eta kolaboratiboagoak artikulatzea ahalbidetzen duten azpiegitura publiko gisa duten zeregina aztertuko da, gobernantza demokratikoko eredu berriak garatzen eta erakundeen eta herri-

tarren arteko harreman-modu berriak sortzen lagunduz.

Jarraian, Xabier Barandiaranek, Decidim Elkartearen ordezkariak, plataforma sostengatzen duen eredu ireki eta publiko-komunitarioan sakontzeko du, bere printzipioak, gobernantza logika eta azpiegitura publiko gisa duen zeregina landuz. Ondoren, Pau Paralesek, soluzio digital irekietan adituak, plataformaren erakustaldi teknikoak egingo du, gaitasun funtzionalean, moduluaren konfigurazioan eta testuinguru instituzionaleko tresnaren trazarabiltatean oinarrituta.

Jardunaldiaren une nagusietakoa izango da *Esperientzia aktiboak erakunde publikoetatik* mahai-ingurua. Bertan, Euskal Herriko Unibertsitateko, Nafarroako Gobernuak eta Tolosa, Galdakao eta Getxoko udaletako ordezkariak beren esperientziak partekatuko dituzte.

Azkenik, Gorka Mostajok, Getxoko Udaleko Kultura, Gobernu Ireki eta Euskara zinegotziak, amaiera emango dio goizeko jardunaldiari.

Informazio gehiago:

<https://zeugaz.getxo.eus/conferences/zeugazeguna?locale=eu>

Kultura eta Zeugaz

Jardunaldiaren bigarren zatian, arratsaldean, Getxon erroldatutako gazteek hartu ahal izango dute parte Getxo Kulturak abian jarriko duen parte-hartze prozesu batean. Saio horren helburua da urriaren 31n Gau Beltz Gaztea (Domu Santu egunaren bezpera) ospatzeko jarduerak definitzea.

Kultura-erakundeak laster emango du prozesu horren berri, 2026ko Aurrekontu Parte-hartzaileen barruan: *Gazteen-tzako kultur eta jardueren programa, modu parte-hartzailean egina*. 150.000 euroko partida erabili da horretarako.



APIRILAK 16 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ensalada de cuentos", Beldebil taldearekin. 3 urtetik aurrera.

Liburu aurkezpena. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "En las afueras de la oligarquía vasca" liburuen aurkezpena, Paco Blanco egilearen eskutik. Antolatzailea: Gizatiar.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Joachim Trierrren "Valor sentimental" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

Literatura solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Katharina Winklerren "Corazón de siete lenguas" liburuen inguruan.

APIRILAK 17 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, Villamonten, ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten pertsonen bilera. Gaztelaniaz.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Massilia" (gaztelaniaz), La Jarra Azul eta Puça Espectacles-ekin. 8 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Lois Patiñoren "Ariel" (gaztelaniaz, galizieraz eta portugesez). 7 urtetik aurrera. 3,50 euro.

APIRILAK 18 LARUNBATA

Kontzertu dramatizatua. 20:00etan, Muxikebarrin, "Chet Baker eta itsasoa: jazz y raices vascas": Saúl Santolaria (ahotsa), Xabi Arakama (trikitixa), Txema Eiros (kontrabaxua) eta Mikel Gaztañaga (pianoa). 10 euro.

Kontzertua. II. zikloa: "Organo & Polyphonia". 20:00etan, Bariko San Nikolas parrokian, Korral Brahms (Bilbao) eta Miriam Cepeda (organista). Zuzendaria: Gorka Sierra. Antolatzailea: Merklin Organoaren Lagunen Elkarte.

APIRILAK 19 IGANDEA

Zinematikiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Los misteriosos cuentos del manzano". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Bertsolaritza eta Literatura. 18:00etan, Muxikebarrin, "Francesco Pasquale bosgarren arima", Unai Eiorriaga, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Unai Mendibururekin. 6 euro.

Antzerkia. Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Más allá de la línea azul", Hamaika Antzerki Taldearekin. Gonbidapenak agortuta.

APIRILAK 20 ASTELEHENA

Mahaingurua. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "Huesos para toda la vida. Salud osteoarticular desde la nutrición y el movimiento". Hizlariak: Vanesa Polo (fisioterapeuta, akupuntorea eta Feldenkrais metodoaren irakaslea) eta Laura Lán-gara (biokimikoa, nutrizio-aholku-

laria eta UNED-Senior Nutrizioko irakaslea). Antolatzailea: Gizatiar.

APIRILAK 21 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANeren egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

Hitzaldia. Introducción a la Música Clásica. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Verismo y zarzuela". Hizlaria: Diego de Amigo (konpositorea eta Barakaldoko Kontserbatorioko irakaslea). Antolatzailea: All'Antica Musika Kultur Elkarte.

APIRILAK 22 ASTEZKENA

Liburu-aurkezpena. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "El caso del tirano" liburuen aurkezpena (gaztelaniaz), Diego López egilearekin.

APIRILAK 23 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Kelly Reichardtaren "The mastermind" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

APIRILAK 24 OSTIRALA

Liburu Azoka. Areetako Geltokiko plazan. **Azoka.** Tokiko liburu-dendak eta liburutegi-zerbitzua. **Egitaraua.** Ipuin kontaketak, tailerak, egileekin topaketak, literatura ibilbidea... Info.: <https://labur.eus/d8lunvjc> Orduetgia: 10:30-14:00 eta 17:00-21:00h.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Zanbuila" (euskaraz), Lolak Kolektiboarekin. 8 euro.

Zine Kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Asier Urbietaren "Faisaien irla" (gaztelaniazko azpiztituluekin). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

APIRILAK 25 LARUNBATA

Liburu Azoka. Areetako Geltokiko plazan. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00h.

Nazioarteko Dantza Eguna. Evaristo Churruka kaia. 12:00etan, barra klasikoaren erakustaldia (balleta). **San Nikolas plazan.** 18:00etan, ikasle gazte eta helduen dantzaldia. 19:30ean, jendeari irekitako klasea. Eguraldi txarra badago bertan behera utziko da.

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokian, "Vientos del norte", Trio Telemann hirukotearekin: Susana Zabaco (sopranoa), Emili Castelo-Branco (tronpeta) eta Patxi Garcia Garmilla (organoa).

APIRILAK 26 IGANDEA

Liburu Azoka. Areetako Geltokiko plazan. 11:00-14:30h.

Zinematikiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Elur errukiaren erregea". Adin guztientzat. 2,50 euro.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Desioen arraina". Adin guztiak. 2,50 euro.

Antzerkia. Muxikebarrin, 19:00etan, "¿Quién soy yo?", Oihane Garcia, Egoitz Lucena eta Ivan Coralekin. 10 euro.

Kontzertua. Pio Lindegardena omenez. 19:30ean, Muxikebarrin, Uri Caine Trio. 12 euro.

Neguko Ostatu Dispositiboa 24 gauetz irekita

Neguko Ostatu Dispositiboa 24 gauetz ireki zen eguraldi txarra dela eta, joan den azaroaren 24tik martxoaren 31ra bitartean, lo egiteko leku estalirik ez duten pertsoneri zerbitzua emateko. Epe horretan 33 gizon joan ziren Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateak Getxo-Urbe Kosta eskualdean eskaintako etxerik gabeko pertsonentzako Zerbitzura. Aurreko denboraldian 38 gizon eta emakume bat bertaratu ziren Zerbitzua eskaini zen 40 egunetan, bal-

dintza meteorologiko txarreak hala eskatu baitzuten.

Bataz beste 3 egunez geratu ziren bertaratu zirenak, bi pertsonak baino ez zituzten 9 gau errepikatu eta plaza guztiak bete ziren lau gauetz. Gogoratu baldintza meteorologiko txarrak direla 5 graduko edo hortik beherako tenperatura, eta Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziak ezartzen dituen abisu horia, alerta laranja eta alarma gorria euriagatik, eta alerta laranja eta alarma gorria haizeagatik.



Komun berria irekita dago Portu Zaharrea, erabili ondoren berez garbitzen dena

Portu Zaharreko komun berriaren modulua zabalik dago erabiltzeko pasa den astetik; erabilpen bakoitzaren ondoren berez garbitzen den komuna da. Ekipamendua (kasu honetan bikoitza, kanpoko pixatokiekin) ipintzeko 101.640 euroko inbertsioa egin da, eta bere funtzionamendu-ordutegia 07:00etatik 23:00etara da. Jarduera hau, 2025eko Aurrekontu Parte-hartzaileen eta udal Gobernuak eta Alderdi Popularrak Udalaren Aurrekontu Orokorra babesteko iaz sinatutako akordioaren barruan dago. 15 komun publiko dira dagoeneko udalerriko hainbat lekuan daudenak.



Bisita ehun urteko Daniela Elizalde Casajusiri

Amaitu Aguirre alkateak Daniela Elizalde Casajus auzokidea bisitatu du aste honetan, 100 urte bete zituela eta, Algortako etxebizitzan. Nafarroako Zangozan jaioa, duela urte batzuek geroztik Getxoko auzokidea da. Seme bat eta alaba baten ama da emakumea, eta lau biloba eta bi birbiloba ere eduki ditu. Agintariak ohiko Aixerrotaren oroigarria eta lore sorta bat eman dizkio.

ROMOKO HAURRESKOLARI BURUZKO OHARRA

Eusko Jaurlaritzak datorren ikasturterako iragarri duen haur-eskoletako matrikulazio-aldiak ez du eraginik izango Romoko Haurreskola berrian. Epe hori Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jakinaraziko du.

Guroten finala

Azkorri ikastetxeko Hirukote Top-Top eta San Nikolas ikastolako Garaileak taldeak sailkatu dira apirilaren 24an, ostiralean, Bilboko San Mames estadioan izango den Gurot euskal galderei buruzko lehiaketaren Bizkaiko finalean parte hartzeko, Bizkaiko bi mankomunitatek eta hiru udalerrik sustatuta, tartean Getxok. Lehen saria Port Aventuraarako asteburu bat izango da, bigarrena Warner parkerako, hirugarrena IrriSarrri Land abentura parkerako, laugarrena asteburu bat Biarritzen eta bostgarrena Athletic Museoa ikusteko sarrerak.

Getxo Enpresak bere urteko memoria aurkeztu du

240 negozio baino gehiago inplikatu ziren 2025ean Getxo Enpresa elkarteak udalerrian antolatu zituen 15 jardueretan, urteko batzarra onartu berri duen Memoria-aren datuen arabera, eta, aldi berean, presidente berria aukeratu zuen: Nuria Barreiros, JB Algorta moda saltokiaren jabeetako bat.

Getxo Enpresak informazio-zirkularrak kudeatu zituen 140 gai desberdinekin, gehienak, %54, merkataritza-dinamizazio jardueri buruzkoak; %26 laguntza, diru-laguntza eta lizitazioei buruzkoak; %11 elkarteari berari buruzkoak, eta %9 udalerriko araudiei buruzkoak. Zehazki, entitateak 36 laguntza, diru-laguntza eta lizitazioen berri eman zien saltoki eta negozio txikiak, eta horietako 68rentzat izapideak erraztu zituen. Horrez gain, enpresei langileak hartzen lagundu zien, 13 profilekin, Enplegu Poltsaren bidez kudeatuta.

Aurten, Getxo Enpresak ekin-tza berriak aurreikusten ditu, hala nola Getxo Open Art arte garaikideko jaialdia, hilabete batez saltokietako erakusle-oihoak galeria iragankorren sare bihurtzen dituen, hiriko eta merkataritzako ibilbide artistiko bat sortuz, eta Getxo Dastatu Gaur, atal digital bat, non parte hartzen duten ostalaritza eta elikadura negozioei zabalduko zaien elkartaren sare sozialen bidez.

2026ko aurrekontua 684.578 eurokoa da.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.




“Chet Baker eta Itsasoa“, jazza eta euskal sustraiak

Larunbat honetan, hilaren 18an, *Chet Baker eta itsasoa* ikuskizuna izango da Muxikebarrin, Chet Bakerren jazz introspektiboaren eta euskal musika tradizioaren arteko soinu zubi bat marrazten duen kontzertu dramatizatua. 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 10 eurokoa da.

Chet Baker (1929-1988) estatubatuar tronpeta-jotzaile eta abeslaria izan zen, cool jazzaren ikonoa.

Bere estiloaren ezaugarri nagusia soinu leun, malenkoniatsu eta intimista izan zen, bai tronpeta jotzeko moduan, bai ahots belusatuan.

Agertokian, Mikel Gaztañagak (pianoa), Txema Solanok (kontrabaxua), Santi Ibarretzek (saxoa eta flauta), Oskitz Gorrotxategik (tronpeta) eta Saul Santolariak (ahotsa) ustekabeko soinu-bidaia hunkigarria proposatzen dute.



Unai Elorriagaren azken eleberriari buruzko bertso saioa

Unai Elorriaga algortar idazleak eta Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Unai Mendiburu bertsolariek Muxikebarrin egingo duten topaketan parte hartuko dute.

Saioa 18:00etan hasiko da. Unai Elorriagaren *Francesco Pasqualen bosgarren arima* azken eleberria abiapuntutzat hartuta, egileak bere lanaren zatiak irakurriko ditu eta,

horietatik abiatuta, bertsolaritzaren ahots handiei hainbat gai proposatuko dizkie.

Emaitza bi hizkuntzen arteko elkarrikerketaren sortzailea da, beren esentzia galdu gabe elkar lotzen direnak. Inprobisazioak ikuskizunaren bizkarrezurra izaten jarraituko du, baina literatur bultzadak tonu eta erregistro paleta zabal bati atea irekiko dio: umorea, poesia, narrazioa, hausnarketa edo tentsio dramatikoa.

Saiorako sarreraren prezioa 6 eurokoa da.

La Jarra Azul eta Puça Proyacles “Massilia” lanarekin iritsiko dira Getxora

La Jarra Azul eta Puça Proyacles konpainiek Muxikebarrin arituko dira apirilaren 17an, ostiralean, eta *Massilia* aurkeztuko dute, errepublikar erbesteko itsasontzietan eskainitako trilogia ixten duen pieza, *Los niños de Morelia* eta *Winnipeg, el vaixell de Neruda* aurretik direla.

Tramak intelektual eta artista errepublikar talde batek 1939an Buenos Airesera bidean *Massilia* itsasontzian egindako bidaia kontatzen du. Memoria, mina eta gizatasuna bezalako gaiak aztertzen ditu Argentina eta Espainiaren arteko kontrastearen bidez. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izango da. Sarrera: 8 euro.



“Más allá de la línea azul” antzezpenerako gonbidapenak agortu dira

Hamaika Antzerki Taldeak *Más allá de la línea azul* antzezlaren emanaldirako gonbidapenak agortu ditu apirilaren 19an, igandea, 19:00etan, Romo Kultur Etxean. *Mujeres en escena* zirkuituaren barruan programatutako antzezlana, lan bila Estatu Batuetara emigratzen duten senarrak, anai-arrebak eta seme-alabak kaleratzen dituzten emakume mexikarren istorioa kontatzen du. Aireporturako sarbidea mugatzen duen lerro urdinak mugako kontrola eta zatiketa fisiko eta mentala sinbolizatzen ditu.



“Organoa & Polyphonia” bigarren zikloa

Algortako Merklin Organoaren Lagunen Elkarteak, Udalaren laguntzarekin, Organo & Polyphonia II. Zikloa antolatu du, apirilean, maiatzean eta ekainean, Bariko San Nikolas parrokiaren. Ekimen honen helburua da “parrokiako Merklin organo historikoari balioa ematea, ondare instrumentalaren harribitxia baita, eta bere sonoritatea giza ahotsarekin konbinatzea, koru formazio ezagunen eta bakarlari interpreteen bidez”.

Lehenengo kontzertua larunbat honetan izango da, hilak 18, eta Bilboko Koral Brahms eta Miriam Cepeda organista arituko dira, Gorka Sierraren gidaritzapean. 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da.

Kontzertua Kristo Eroslean
Bestalde, apirilaren 25ean, larunbata, 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokiaren *Vientos del norte* goiburupean kontzertua izango da, Telemann Trioak interpretatuta: Susana Zabaco (sopranoa), Emili Castelo-Branco (tronpeta) eta Patxi Garcia Garmilla (organoa). Sarrera doakoa da.

Sistema honi esker, gurutzaontziek lurreko sare elektrikora konektatu ahal izango dute portuan dauden bitartean, motor osagarrien erabilera ezabatuz eta emisioak, zarata eta bibrazioak nabarmen murriztuz

Getxoko gurutzaontzien terminalak OPS konexiorako bi puntu jarriko ditu martxan 2027aren amaieran

Bilboko Portuko Agintaritzak Miamin da egunotan gurutzaontzien turismoa sustatzeko, aurten ere, Seatrade Cruise Globalen, sektoreko nazioarteko azokarik handienan. Bizkaiko eta Euskadiko erakargarritasunak eta Getxon dituen instalazio modernoak erakustez gain, Portuko Agintaritzak portuko gurutzaontzien terminalak elektrifikatzeko egiten ari diren lanak azalduko ditu. Lan horiek Onshore Power Supply (OPS) sistema hedatuz egiten ari da, nazioarteko ontzi-enpresa nagusiek eskatzen dituzten ingurumen- eta eragiketa-estandarrekin guztiz bat datorren helmuga izan dadin. OPS sistemari esker, gurutzaontziek lurreko sare elektrikora konektatu ahal izango dute portuan dauden bitartean, motor osagarrien erabilera ezabatuz eta emisioak, zarata eta bibrazioak nabarmen murriztuz.



Bilboko Portuak projektuan txertatuko du sorkuntza fotovoltaikoa, ontzietan hornitutako energiak jatorri berdea izan dezan zuzenean laguntzen duena.

Guztira, Getxoko gurutzaontzi-terminalak bi OPS konexio-puntu izango dituzte, ontzi bakoitzeko 16 MVA hornitzeko ahalmenarekin, gurutzaontzietan hornidura elektrikoa emateko nazioarteko IEC/ISO/IEEE 80005 estandarrei jarraituz. Une honetan, proiektua gauzatzefasean dago, eta gurutzaontzien terminaletan OPS martxan jartzea 2027aren amaierarako aurreikusita dago, 2028an lehen konexioak egiten has daitezela.

Portuko Agintaritzak berak ordaintzen du proiektua, eta Europako Batzordearen finantzaketa du, CEF (Connecting Europe Facility) programaren, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia - NextGenerationEU Planaren eta EIBren (Europako Inbertsio Bankua) bidez.

Aurreikuspenak eta gogobetetze-inkesta

2026an, Bilboko Portuak ehun geldialdiak gaitzeko espero du. Portuko Agintaritzak egindako azken inkestaren arabera, gurutzaontzietan bidaiarien %90 pozik edo oso pozik dago, bai portuko

instalazioekin, bai ontziratze- eta lehorreratze-eragiketekin.

Gainerako alderdiak ere positibotzat jotzen dira, eta gehien baloratzen dena doako Wi-Fi zerbitzua da. Era berean, oso preziatua da anezka-zerbitzua, Bilboko erdigunearekin hogeita minutuan lotzen dituen metro-geltokiak hurbiltzen baititu. Pertzepzio positibo nabarmena duten beste zerbitzu batzuk turismo-informazioa, gorabeheretarako arreta edo zerbitzu medikoak dira. Portuko Agintaritzaren arabera, "emaitza horiek bermatzen dute azken urteotan egin duen lana, erakunde publikoen, turismo-bulegoen

eta tour-operadoreen laguntzarekin, Bilbo, Bizkaia eta Euskadi helmuga erakargarri bihurtzeko, bai ontzi-konpainientzat, bai turistentzat. Era berean, datuek erakusten dute zeinen egokiora izan den Portuko Agintaritzak berak Getxon egindako inbertsioa, gurutzaontzien eta bidaiarien behar espezifikoak erantzuteko azpiegitura moderno, seguru eta praktikoa sortzeko. Horri esker, eta zerbitzu hori ematen duten profesional askok (portuko gidariak, atoiotziak, amarratzaileak, kontsignatarioak...) ematen duten zerbitzuari esker, Bilboko Portua turismoaren Euskadiko sarrera-ate nagusietako bat bihurtu da, eta nazioarteko erreferentzia sektore horretan".

Erakusketa berria Ingurumen Aretoan, "Naturaleza a la deriva"

Sonia Bouso artista bisual eta diseinatzaile getxotarraren erakusketa berria, *Naturaleza a la deriva* izenburukoa, Larrañazubiko Ingurumen Aretoan dago ikusgai uztailearen amaierara arte. Artistak konposizio eta instalazio iragankorrak egiten ditu, ikebanaren premisetan oinarrituta (loreak konpontzeko arte tradizional japoniarra), geroa haien argazkiak ateratzeko. *Naturaleza a la deriva* erakusketan, Getxoko hondartzetan bildutako landare-materialekin lan egiten du batez ere, itsasoak itzulitako materia naturala, modelatu ondoren.

Erakusketan, elkarlaneko instalazio batean parte hartu ahal izango da, artearen, naturaren eta pertsonen elkargunea aztertzen duen esperien-



tzia partekatu batean, interkonexioa nabarmenduz. Gainera, apirilaren 26an, Bousok bisita gidatua egingo du 12:00etatik 13:00etara, eta bertan parte hartzeko izena eman beharko da Ingurumen Aretoan bertan.

Erakusketaren bisita-ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era, astegunetan, eta 10:00etatik 14:00etara, asteburu eta jaiegunetan.

Naturaren soinuei buruzko ikastaroa

Ingurumen Unitateak *Naturaren soinua* izeneko doako ikastaroa antolatu du apirilaren 25erako, larunbata, pertsona helduentzat. Jarduera hitzaldia batekin hasiko da, 16:00etan Romo Kultur Etxean, eta parte hartzaileei azalduko zaie zein den naturan bertan hobeto entzuteko eta grabatzeko beharrezkoa eta gomendagarria den materiala, baita zelaian ziurrenik entzun ahal izango diren espezioak zeintzuk diren ere.

Ondoren, iluntzean, taldeka ibilbide bat egingo da Bolueko hezegunean zehar. Bertan, atariko hitzaldian jasotako informazioa praktikan jarri ahal izango da, naturaren soinuez gozatzeko eta horiek ezagutzeko. Tailer praktikoa hori Borja Marcos naturalistak eta



Xabier Buenetxea Getxoko Faunen Jarraipen taldeko koordinatzaileak eskainiko dute.

Ikastaroan parte hartzeko izena boluenatura@gmail.com helbidetan eman behar da. Grabagailua edo telefono mugikorra eramatea gomendatzen da, grabatzeko aplikazioen batekin, entzungailuak, ahal bada, eta zaratarik sortzen ez duen arropa.

Habia-kutxa monitorizatu bat jarri da Mesedeetako elizako dorrean, belatz handi bikote baten jarraipena egiteko

Mercedes eta Tony izena duten belatz handi gazteak bikotekide dira, eta duela urtebete Areetako Mesedeetako Ama Birjinaren elizako dorrean kokatzea erabaki zuten. Egoera horren ondorioz, biodibertsitatea sustatzeko bultzatzen duen programaren esparruan, Udalak habia-kutxa bat jarri du harrapari horien ugalketa errazteko. Horrela, hiri-eremuan belatz erromesen presentzia sendotzen laguntzen da. Zehazki, Getxon eta Euskadin hiri-ingurune batean habia egin duten lehenak dira.

Gaur egun, bikotea sendo kokatuta dago dorrean, eta habia-kaxa ugaltzeko toki gisa hartu dute, hondarra haztakatu eta txitatzen ari diren eta ziurrenik aste honetan zehar eklosionatuko diren bi arrautzak biltzen dituen ontzia prestatu ondoren (edizio hau ixterakoan ez zen ordurako jaiotza gertatu).

Proiektuak, Anticimex konpainia (izurriteen kontrolean liderra den konpainia), Bizkaiko Belatz Handiaren Ikerketa Taldeko espezialisten eta Mesedeetako Ama Birjinaren Elizaren beraren laguntza du. Monitorizatutako habia-kutxa instalatzeak aukera ematen du belatz bikotearen ugalketaren aurrerapena zuzenean ikusteko,



hegazti harrapari horiek hiri-ekosistemen orekan duten funtsezko rola erakutsiz. Carlos Sergio Ingurumen zinegotziak azaldu duenez, *“hainbat ekimen egiten ditugu Getxon biodibertsitatea sustatzeko, hiri jasangarriago baterantz aurrera egiteko gure apustu irmoaren barruan. Oso pozgarria da ikustea nola erakundeen arteko lankidetzak aukera ematen digun proiektu berriak bultzatzeko, baita kontzientziazio soziala sustatzeko ere”*.

Belatz bikote hori Getxon finka-

tzea funtsezko laguntza da hiriko hegazti espezie ugariaren populazioa kontrolatzeko, hala nola etxe-usoena, pagausoena edo arabazozoena, hedatzean higie eta osasun arazo handiak eragin baititzakete hiri inguruneetan. *“Oso harro gaude proiektu honen parte aktibo izateaz. Hiriko biodibertsitatea sustatzeko funtsezko ekimena da, eta, aldi berean, kontrol naturala bermatzen da, populazioak modu egonkorragoan eta jasangarriagoan erregulatuz”*, Julen Zuberogoitia, Anticimexeko hegaztien kudeake-

ta iraunkorrean espezializatutako ekoizle managerraren hitzetan.

Belatz bikotea behatzeko egunero Areetako elizara joaten diren ornitologo eta hegazti-zale ugariak gozatzen ari dira, bi aleak lasaitasun osoz ikus baitaitezke, habiara egiten dituzten joan-etorriez gozatuz, hiriko mugimendu handira ohituta baitaude. Gainera, laster, herri-tarrek bikote hori eta beren txitak zuzenean ikusteko aukera izango dute udalaren webgunearen bidez (<https://labur.eus/jqq03e2a>).

KIROLAK

Maiatzaren 6ra arte dago zabalik Getxo Kirolak udako kirol ikastaroetan izena emateko epea

Getxo Kirolak-ek 1.620 plaza eskainiko ditu uztailean eta abuztuan Fadurako eta Gobelako kiroldegietan antolatuko diren udako ikastaroetan. Programazioaren ardatza haurrei eta gazteei zuzendutako jarduerak dira, baina helduentzako eta 60 urtetik gorakoentzako ikastaroak ere eskaintzen ditu. Helduentzako eskaintzaren kasuan, asko eskatzen den modalitate batekin indartu da: entrenamendu funtzionala.

Ikastaro hauetan izena emateko beharrezkoa da abonua txartela izatea, eta aurreinskripzioa maiatzaren 6ra arte egin daiteke dagoeneko Getxo Kirolak-en webgunearen bidez edo aurrez aurre Fadurako edo Gobelako jendearen arretarako bulegoetan. Plazen zozketa eta behin betiko esleipena maiatzaren 8an egingo da.

Eskaintzaren barruan, 4 eta 14 urte bitarteko haurrentzako haur eta



kirol anitzeko ikastaroak nabarmentzen dira; 5 ordukoak dira eta astelehenetik ostiralera goizez eskainiko dira. Horietan, zaintza zerbitzua egongo da jarduera baino ordu erdi lehenago eta ordu erdi beranduago, eta egunero ingelesezko ordubeteko eskola emango da. Gainera, Grand Slameko ikastaroak izango dira, tenisa, padela eta uretako jarduerak praktikatzeko, 8 eta 16

urte bitarteko adingabeentzat; eta igeriketa-eskolak 4 eta 17 urte bitarteko adingabeentzat, besteak beste.

Getxo Kirolak-ek udako kirol eskaintza osoa jasotzen duen liburuxka argitaratu du. Fadura eta Gobelaren bulegoetan jaso daiteke eta Getxoko kirol erakundearen webgunearan deskargatu (<https://labur.eus/fmmzsem9>).

Castroviejo Titan Desert Skodan

Jonathan Castroviejo txirrindulari ohi getxotarrak Marokoko Skoda Titan Desert lasterketan parte hartuko du apirilaren 26tik maiatzaren 1era. Castroviejok lehen aldiz egingo dio aurre modalitate horretako lasterketa bati, basamortuko erronka onartu ondoren. Hain zuzen ere, KH-7 taldean arituko da, eta kirol erronka handia izango da berarentzat, sei jardunaldi izango baitira maila gorenean bete beharrekoak; eta ia 600 kilometro eta 6.000 metroko desnibela egin beharko dute.

Lasterketako talde handienaren liderretako bat izango da, 50 txirrindulari baino gehiagoz osatua, eta azken garaipenaren alde borrokatuko du, nabigazioa, basamortuko tenperatura altuekiko erresistentzia eta esfortzuaren kudeaketa funtsezkoak diren kirol ekitaldi batean. Castroviejoren esperientziak, kalitateak eta ibilbideak bere taldearen garaipenerako aukerak indartuko dituzte.

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, HIRI SEGURUA

Bai, Getxo hiri segurua da, Euskal Autonomia Erkidegoko 50.000 biztanletik gorako hirien artean kriminalitate-tasarik baxuena duena. Ildo horretatik, behera egin dute delitu presentzialek eta informatikoeak, baita udalerriko hiru festa nagusietan erregistratutako delituek ere. Prebentzio-lanetan polizia gehiago egoteak, kameren instalazioak eta Ertzaintzarekin lankidetzan aritzeak argi uzten dute.

Batzuek segurtasunaren erabilera bidegabea egin arren, Getxo nabarmendu egin da 2025ean, Euskal Poliziaren datuen arabera, % 5,75eko jaitsiera izan baitu delitu presentzialetan, eta % 4,60eko jaitsiera ziberdelituetan. Getxoko Udaltzaingoak zerbitzu hurbil eta hurkoa ematen du egunero, prebentzio-lanen bidez, udalerriko segurtasuna handitzen jarraitzeko.

Getxoko EAJ-PNV alderdiak konpro-

miso erabat argia hartu zuen bere gain hauteskunde-programan. "Getxo, hiri segurua: Polizia-zerbitzu hurbil eta hurkoa eskaintzen jarraitzea, prebentzio-lanekin eta Ertzaintzaren laguntzarekin batera Getxoko herritarren eta Getxo bisitatzera datozen guztien segurtasuna handitzen jarraitzeko". Instituzioen arteko kolaborazioari esker lortzen da konpromiso argi hori indartzea. Duela egun batzuk Getxon egin den Uribe Kostako Segurtasun Foroa dugu horren eredu. Horiek horrela, Segurtasun Sailak, Ertzaintzak, Udaltzaingoak, eskualdeko udalek eta hainbat arlotako gizarte-eragileek segurtasunaren inguruan hausnartzen aritu dira, kontu benetan garrantzitsua eta larria baita. Pertsonen eta herrien segurtasunari dagokionez planteamenduak eta beharrezkoak partekatu dituzte, delinkuentziaren eraginak behera egiten jarrai dezan, bai Ge-

txon, bai gure inguru osoan.

Getxo hiri segurua izatearen konpromisoa betetzen dugu; izan ere, Getxok

50.000 biztanletik gora dituzten udalerrien artean delitu gutxien duen udalerrria izaten jarraitzen du.



UKO EGITEN DIOGU BRITTANY FERRIES-EN FERRYA GETXORA LEKUALDATZEARI

Alderdi Popularrak Udalaren pasibotasuna **salatu nahi du** "Brittany Ferries" konpainiaren jardura Zierbenatik **Getxora** eramateko dagoen aukeraren aurrean. Erabaki horrek **eragin larriak** izan ditzake mugikortasunean, bide-segurtasunean eta getxotarren bizi-kalitatean. Ulertezintzat jotzen dugu gobernu-taldeak honelako eragiketaren baten aurrean **azalpen argirik eman ez izana** eta herritarren interesak irmoki **defendatu** ez izana. Gainera, astero gorpil bidezko zama daramaten **ferryak iristek** ekarriko luke **egunero 200 kamioi as-tun** inguru eta **astero 400 inguru** sart-

zea trafiko hori jasateko prestatuta ez dauden herri barruko bideetatik. Zugazarte, Arriuze eta **Algorta eta Areetako sarbideak** udalerriko eguneroko bizitzarako pentsatuta daude, ez **pasabide logistikoak** izateko.

Jarduneko alkatearen **isiltasunaren** aurrean, **defendatu** nahi dugu Getxoren egoitza-izaera eta izaera turistiko zein kulturala babesteko beharra, eta gure inguruan aldaketak eragiten dituzten erabakiak hartu aurretik **bizilagunei entzutea**.

#Andrade2027 #EsnatuGetxo



ehbildu

ALGORTAKO PORTU ZAHARRA: ONDARE BIZIA ALA DEKORATU TURISTIKOA?

Algortako Portu Zaharra, Getxoko bihotz historiko eta sinboloa, bidegurutzean dago, honen nortasuna desitxuratzeko arriskupean. Kontrolik gabeko gentrifikazio eta erakundeen utzikeriaren agertoki bihurtzen ari da auzotarrentzako izan beharko litzatekeen algortako portua.

Gentifikazioa jada ez da urruneko mehatxua, errealitate nabarmena baizik. Auzoak pisu turistikoaren ugaritzea eta auzo-bizitzaren galera pairatzen ditu. Kasurik nabarmenena Etxetxu eraikinarena da, udaletxearen egoitza zaharra eta udalerraren ikurra. Onar-

teztina da ataripe publikoa itxita egotea 2023ko azarotik, habe bat hautsi delako, pisu tuitrikoen negozio pribatuak bete bete funtzionatzen jarraitzen duen bitartean.

Horri beste elementu bat gehitu behar zaio: Ur Partzuergoak portuko aparkalekuan ponpaketa-hodiak berritzeko obrak. Euriteetan itsasora isuriak saihesteko beharrezkoak badira ere, lan horiek 18 hilabetez luzatuko dira eta horien inpaktua kezkarria da: 25 aparkaleku kendu dituzte Portu Zaharrean, dagoeneko kolapso kronikoa duen eremuan.

Bertakoentzat ia ezinezkoa bihurtu da autoa euren auzoan uztea. TAO zerbitzua ordaindu arren, bisitarien espazio osoa okupatzen dutela ikusten dute, auto ilara etengabeekin eta espaloi eta bidegorrietan aparkatutako autoekin. Horri azpiegitura eskasak gehitu behar zaizkio, hala nola Portu Zaharreko igogailua, etengabeko matxurek are gehiago zailtzen baitute mugikortasuna.

Egoera horren aurrean, ez dira nahikoa berandu iristen diren "azterketa teknikoak". Eraginkortasuna erakutsi zuten neurriak berreskuratu behar dira, hala

nola La Ola jatetxetik trafikoa bertan bizi direnei mugatzea. Pandemiaren zehar, murrizketa horrek oinezkoen protagonismoa itzuli zien eta haurrei autoen beldurrik gabe jolastea ahalbidetu zien.

Getxoko Udalak ezin du beste aldera begiratzen jarraitu. Premiazkoa da auzo bizitza eta ondarearen babesa turismo ustiapenaren gainetik lehenetsiko dituen plan bat. Portu Zaharra ez da soilik turismo liburuxka bateko erreklamo bat; gure herriaren memoria bizia da, eta ezin dugu onartu obren eta axolagabetasunaren azpian hondoratzea.

PSE-EE
PSOE

CARLOS HERNANDO, BESTEEI ESKAINITAKO BIZITZAREN BALIOA



ANIMALIEN
SUFRIMEDURIK
GABEKO FESTAK

Apirilaren 8an utzi gintuen **Carlos Hernandok**, Algortako auzokideak, herritar askorentzat erreferentziatzeko zenak. Portugaleteko Santa María ikastetxean lan egin zuen erretiroa hartu zuen arte. Bere ikasle izandakoek beti oroitu dute irakasle bihozbera eta enpatiaduna izateagatik, beti irribarretsu egoteagatik eta hezten lagundu eta bidelagun izateagatik. Carlos **AJAN**eren lehen bazkide

eta sortzailea izan zen. Elkarte horrek Getxoko 2.000 adineko baino gehiago biltzen ditu, eta funtsezko gune bihurtu da zahartze aktiborako, loturak sortzeko eta nahi ez den bakardadea prebenitzeko. Bere konpromisoa ez zen erakunde bakarrera mugatu, **Ibar Nagusien Etxea** eta **Urte Alaia** adinekoen elkarteetan ere aktiboki parte hartu baitzuen, beti jarrera eskuzabal berarekin. Carlos beza-

lako pertsonen gogorazten digute zein garrantzitsua den gure denbora besteei eskaintzea, komunitatea eraikitzea eta besteengan umilki eragitea. Egundik bere ondareak bizirik jarraitzen du ehuntzen lagundu zuen jardura, topaketa, harremanetan eta elkartei eusteko konpromisoarekin jarraitzen duten pertsonengan. Merezi duen aitortza eta eskerrak eman nahi dizkiogu. Bere ereduak bizirik dirau.

Sokamuturra ez! taldeak udalbatzan aurkeztu zuen 1.125 sinadura (ia behar baino bi aldiz gehiago) jaso dituen proposamena, animaliekin egindako ikuskizunak jaietatik kentzeko, beste udalerririk batzuek egin duten bezala. EAJk lepoa eman eta arbuio egin zuen; EHB abstenitu egin zen. Noiz arte babestuko dituzte animalien gaitortu txarrak eta sufrimendua? Gizartea aurrera doa, aurrera egin dezatela festek ere.